

## Txanogorritxo

Behin batean ba omen zen baserriko neskato bat, sekula ikusi den ederrena; ama xoraturik zeukan eta amona are gehiago. Emakume on honek txano gorritxo bat eginarazi zuen neskatoarentzat, oso ongi ematen ziona, hain ongi, ezen leku guztietan Txanogorritxo deitzen baitzioten.

Amak, opiltxoak egosi eta egin zituen egun batean, esan zion:

-Hoa amonarengana nola dagoen ikustera, gaixorik dabilela entzun dinat-eta; eramazkion opiltxo bat eta gurin-ontzitxo hau.

Txanogorritxo berehala abiatu zen amonaren etxe aldera, beste herri batean bizi baitzen. Basoan barrena zihoala otso jaunarekin topo egin zuen, eta neskatoa jateko gogo bizia piztu zitzaion, baina ez zen ausartu, basoan zeuden aizkolari batzuk zirela medio. Otsoak nora zihoan galdetu zion; neskato gajoak, artean ez baitzekien otsoari entzuten gelditzea arriskutsua dela, esan zion:

-Amona ikustera noa, amak eman dizkidan opiltxoa eta gurin-ontzitxoa eramatera.

-Urruti bizi al da? –galdetu zion otsoak.

-Oh, bai! –esan zuen Txanogorritxok- Han urrutian ikusten duzun errota igaro eta hantxe, herriko lehendabiziko etxean.

-Ederki bada! –esan zuen otsoak- Neuk ere joan nahi dinat bera ikustera, nik bide hori hartuko dinat eta hik hango bide hura, eta ikusiko dinagu biotatik zein iristen den aurrena.

Otsoa bere indar guztiaz ziztu bizian biderik motzenetik joan zen, eta neskatoak biderik luzeena hartu zuen, distraitu zelarik urrak hartzen, tximeletei segika eta aurkitzen zituen loretxoekin sortak egiten. Otsoa berehala iritsi zen amonaren etxera; atea jo zuen. Kax-kax.

-Nor da?

-Txanogorritxo, zure iloba –esan zuen otsoak ahots aizunez-, eta dakarzkizut amak zuretzat bidaltzen dituen opiltxo bat eta gurin-ontzitxo bat.

Amonak, ondoezik zegoelako ohean etzanda, oihu egin zion:

-Tira egion maratilaria eta libratuko dun krisketa.

Otsoak maratilaria tira egin eta atea zabaldu zen. Amona gaixoarengana jauzi egin eta ziplo irentsi zuen; izan ere, hiru egun emanak zituen deusik jan gabe. Berehala atea itxi eta amonaren ohean sartu zen, Txanogorritxoren zain, zein beranduago ate joka etorri baitzen. Kax-kax.

-Nor da?

Txanogorritxo otsoaren ahots sendoa entzutean ikaratu egin zen, baina amonak eztarria marrantatua zuela iritzita, honako hauxe erantzun zuen:

-Txanogorritxo, zure iloba, eta dakarzkizut amak zuretzat bidaltzen dituen opiltxo eta gurin-ontzitxo bat.

Otsoak, ahotsa doi bat eztituz, oihu egin zion:

-Tira egion maratilaria eta libratuko dun krisketa.

Txanogorritxok maratilaria tira egin eta atea zabaldu zen. Otsoak, barrura zetorrela ikusirik, mantel azpian ezkututzen zen bitartean esan zion:

-Laga itzan opiltxoa eta gurin-ontzitxoa ogi-kutxaren gainean eta hator nirekin ohera.

Txanogorritxo erantzi eta ohean sartzerakoan, harritu egin zen amona atorra hutsean nolakoa zen erreparatu zuenean.

Honela mintzatu zitzaion:

-Amona, nolako beso handiak daukazun!

-Heu hobeto besarkatzeko, laztana.

-Amona, nolako hanka handiak dauzkazun!

-Arinago ibiltzeko, laztana.

-Amona, nolako belarri handiak dauzkazun!

-Hobeto entzuteko, laztana.

-Amona, nolako hagin handiak dauzkazun!

-Heu jateko, laztana.

Eta hitzok esanda, otso gaiztoa Txanogorritxoarengana oldartu eta jan egin zuen.

(PERRAULT, Charles. *Perraulten ipuinak*. Pamiela etxea)